

Euskal AEko esportazioak %5 igo ziren 2008ko lehenengo hiruhilekoan

Inportazioek %18,5eko hazkunde nominala izan zuten urte arteko aldi berean

Euskal AEko **esportazioek** % 5,0ko hazkunde nominala izan dute 2008ko lehenengo hiruhilekoan, EUSTATEk emandako datuen arabera. Hartara, 4.772,1 milioi eurora iritsi dira.

Lehenengo hiruhilekoko guztizko **inportazioetan**, %18,5eko urte arteko hazkundera izan da, eta zenbatekoa 5.070,6 milioi eurora iritsi da.

Euskal esportazioen tasa eta **espainiarrena** (%5,1) oso antzekoak izan dira. Inportazioetan bada alderik, estatuan %10,1 eta Euskadin %18,5.

1. taula. Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera. 2007-2008ko lehenengo hiruhilekoa. Euroak milakotan.

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Urtarrila-Martxoa			Urtarrila-Martxoa		
	2007	2008	Δ %	2007	2008	Δ %
EUSKAL AE						
GUZTIRA	4.544.231	4.772.111	5,0	4.278.468	5.070.594	18,5
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	350.564	450.527	28,5	1.164.436	1.734.525	49,0
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	4.193.667	4.321.584	3,1	3.114.031	3.336.069	7,1
ARABA						
GUZTIRA	1.270.818	1.352.439	6,4	755.910	928.774	22,9
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	1.929	1.371	-28,9	12.146	12.744	4,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.268.889	1.351.067	6,5	743.764	916.030	23,2
BIZKAIA						
GUZTIRA	1.831.456	1.923.101	5,0	2.542.149	3.183.310	25,2
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	341.443	440.591	29,0	1.139.518	1.708.466	49,9
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.490.013	1.482.509	-0,5	1.402.631	1.474.844	5,1
GIPUZKOA						
GUZTIRA	1.441.957	1.496.572	3,8	980.409	958.510	-2,2
PRODUKTU MINERALAK ETA ENERGETIKOAK	7.192	8.564	19,1	12.772	13.315	4,3
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	1.434.765	1.488.008	3,7	967.637	945.195	-2,3

Iturria: Eustat

Produktu ez-energetikoak bakarrik aztertzen baditugu, ikusiko dugu horiei dagozkien esportazioek %3,1eko urte arteko hazkundera izan dutela, eta izaera bereko inportazioek %7,1ekoa, beti ere 2007ko lehen hiruhilekoarekin konparatuta.

Atzeriarekin egindako transakzioen **guztizko bolumena** -esportazioen eta inportazioen batura-, 2007ko lehen hiruhilekoko 8.822,7 milioi eurotik 2008ko lehen hiruhilekoko 9.842,7ra igo zen.

Hirugarren hiruhilekoko kanpo-merkataritzak 298,5 milioiko **defizita** izan zuen eta, ondorioz, esportazioek inportazioekiko zuten estaldura-tasa %94,1era jaitsi zen. Hala ere, esportazio ez-energetikoak inportazio ez-energetikoen gainetik egon dira, 985,5 milioitan, 2008ko lehenengo hiruhilekoan. Estaldura-tasa %129,5 izan da, urtebete lehenagokoa baino bost puntuz txikiagoa.

Europar Batasuna helburu duten esportazioak %4,1 hazi ziren 2007ko lehen hiruhilekoaren aldean. Nabarmentzekoak dira bai bolumen, bai urte arteko hazkundeagatik ondokoak: Belgika (%26,5), Portugal (%14,4) eta Polonia (%31,3); eusten diote Frantziak (%1,3), edo Erresuma Batuak (%-0,9), eta beheraka dauzkagu Italia (%-4,2) eta Alemania (%-2,1). 27-EBtik kanpo AEB eta Latinoamerikara egindako esportazioak aipatu behar, bietan %7,8ko hazkundea izan delarik.

Europar Batasunetik datozen inportazioak %13,4 hazi dira. Produktu energetikoen hornitzaile diren herrialdeetatik datozenak, aldiz, %49,0 igo dira.

Pisu handieneko **muga-zergen sekzioa** *Metalak eta euren manufakturak* izan da eta 2008ko lehen hiruhilekoan urte arteko %1,0ko jaitsiera izan du. *Garraio-materiala* eta *Material elektrikoa* sekzioak dira tamainaren arabera ondokoak eta hazi egin dira, %3,6 eta %9,5. *Produktu mineralak* ere nabarmentzen dira urte arteko hazkundearen: %28,5


Inportazioetan, *Produktu mineralak* dira muga-zergen sekzioko garrantzitsuenak, %49 hazi dira eta denen %34 hartzen dute. Bolumen handieneko muga-zergen sekzioetan denetik izan da: *Metalak eta beren manufakturak* sekzioa %-0,3 jaitsi zen; *Material elektrikoa* %5,3 hazi zen eta *Garraio-materiala* %44,7.

Arabako esportazioek izan zuten urte arteko hazkunderik handiena, %6,4, 2008ko lehenengo hiruhileko honetan. *Material elektrikoa* (%19,3) *Metalak eta beren manufakturak* (%8,4) eta *Garraio-materiala* (%4,0) sekzioen eraginez. Arabako inportazioak %22,9 gehitu ziren, urte arteko hazkunde nabarmenak ondokoek izan zituztelarik: *Garraio-materiala* (%74,5), eta *Produktu Kimikoak* (%53,8).

Bizkaiko esportazioak %5,0 hazi dira urteko lehen hiruhilekoan; muga-zergen taldeko aktiboenak *Produktu Mineralak* (%29,0) eta *Material elektrikoa* (%16,2) izan ziren. Aipagarria da *Metalak eta beren manufakturetan* izandako jaitsiera, %9,1. Inportazioetan Bizkaian izandako %25,2ko hazkundeak aurreneko jartzen du Erkidegoan, batez ere *Produktu mineral eta energetikoengatik* (%50,0), 2008ko lehenengo hiruhilekoan. Produktu ez-energetikoen inportazioek %5,2ko tasa nominala izan zuten, *Material elektrikoa* (%11,5) eta *Plastikoak eta kautxuak* (%17,3) nabarmentzen direlarik.

Gipuzkoako esportazioen hazkundea (%3,8) apalagoa izan da. Batez ere muga-zergen hiru sekzio bolumen handienekoek ekarri zuten: *Material elektrikoa* (%3,6), *Metalak eta beren manufakturak* (%5,0) eta *Garraio-materiala* (%6,7). Lurralde honetako hiruhilekoko inportazioak %2,2 jaitsi ziren. *Garraio-materialak* (%-35,4), *Zura eta beren manufakturak* (%-28,3) eta *Material elektrikoak* (%-3,2) izan zituzten emaitzarik kaskarrenak. Bestaldean daude *Metalak eta beren manufakturak* eta *Papera eta bere manufakturak*, %2,3ko eta %11,3ko hazkundeekin.

Euskal AEko kanpo-merkataritza. (Joera)



Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Patxi Garrido

Tlf:+34-945-01 75 13 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp